

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Prozeduran parte hartu nahi dutenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. EAEn izatea egoitza.
2. Espainiar nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko herritartasunaren erregistro-ziurtagiria edo Europar Batasuneko herritarraren senitartekoaren txartela lortu izana, edo Espainian bizilekua izateko baimena edo bizilekua izateko eta lan egiteko baimena indarrean izatea, atzerriartasunari eta immigrazioari buruzko Espainiako araudian ezarritako terminoetan.
3. Izena emateko eskabidea aurkezten den unean 18 urte beteak izatea, 1. mailako kualifikazioei dagozkien konpetentzia-atalen kasuan; eta 20 urte, 2. eta 3. mailakoen kasuan.
4. Egiatzatu nahi diren konpetentzia profesionalekin zerikusia duen lan-esperientzia edo prestakuntza izatea:
 - 4.1. Lan-esperientziaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 15 urteetan, gutxienez 3 urteko lan-esperientzia justifikatzea eta, gutxienez, lan egindako 2.000 ordu. I. mailako konpetentzia-ataletarako, 2 urteko lan-esperientzia eskatuko da, eta, gutxienez, lan egindako 1.200 ordu.
 - 4.2. Prestakuntzaren kasuan. Eskabidea aurkeztu aurreko azken 10 urteetan, gutxienez 300 orduko prestakuntza justifikatzea. I. mailako konpetentzia-ataletarako, gutxienez 200 ordu eskatuko dira. Egiatzatu nahi den konpetentzia-atalari lotutako prestakuntza-moduluek iraupen laburragoa dutenean, modulu horietan ezarritako ordu kopurua egiatzatu beharko da.
 - 4.3. Balioetsiko diren konpetentzia profesionaleko atalek betekizun gehigarriak badituzte haien izaeragatik, baldintza horiek betetzen direla egiatzatzen duten agiriak izatea.